

# ERASO

BATEN AURREAN  
JARDUTEKO

GOMENDIOAK

## Erasotua izan bazara:

### Ez zaude bakarrik!

Edozein erasoren aurrean  
**laguntza eska** dezakezu,  
nahiz eta salaketarik ez jarri.



Herri bazkarietan, txosnetan,  
barraketan, tabernetan zein  
kontzertuetan **protokolo**  
arduradunarengatik galdetu.



**Gogoratu:**  
**INOLAZ ERE EZ ZARA**  
**GERTATU DENAREN**  
**ERRUDUNA.**

**Beharrezkoa bada**, udaltzaingora  
(092) edo larrialdietara (112) deitu.  
Mediku arreta behar baduzu  
gogoratu **zerbitzu medikoek** partea  
bidali behar dutela epaitegietara.  
Lesioen parte eskatzea gogoratu  
**zuk ere kopia** izateko.

Sexu-erasorik gertatuz gero,  
gogoratu zure gorputza garbitu,  
jan, edo arropa botatzen baduzu,  
**frogak galdu daitezkeela.**

**i**

Informazio gehiago behar baduzu, Emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren emakumeentzako **informazio eta arreta zerbitzura deitu (900 840 111)** edo **Sexu-indarkeriari arreta integrala emateko zerbitzura (900 840 188) 24h.**

**Jaietan ematen diren eraso**  
**matxista eta indarkeria oro salatu!**



**aske maite hart!**

# Eraso baten lekuko izan bazara:

Erasoa jasan duenarengana hurbildu.

Laguntza behar duen galdetu, bere nahiak eta beharrak zein diren entzun eta **ERRESPETATU**



ERASO BATEN AURREAN LAGUNTZA  
ESKATZEN BADIZUTE EZ EGIN  
EZ IKUSIARENA, ZURE ARDURA ERE BADA  
INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO  
JAIK SORTZEA



Erasoa jasan duenak **NAHI BADU** herri bazkarietan, txosnetan, barraketan, tabernetan, zein kontzertuetan **protokolo arduradunarengatik** galdetu.

**Beharrezkoa bada edo eraso jasan duenak nahi badu** udaltzaingora (092) edo larrialdietara (112) deitu.

**Mediku arreta** behar edo nahi badu jakinarazi berari eta beraren ingurukoei larrialdietako zerbitzu medikoek **partea bidali behar dutela** epaitegira eta garrantzitsua dela **kopia bat eskatzea**.



Salaketa jarri ala ez, informazioa eta laguntza eska dezakeela jakinarazi. Emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren emakumeentzako **informazio eta arreta zerbitzura deitu (900 840 111)** edo **Sexu-indarkeriari arreta integrala emateko zerbitzura (900 840 188) 24h.**



**Gogoratu:**  
**Eraso matxistarik gabeko jaiak izatea denon ardura da.**

**EZ izan konplize.**

**Konfidentziasuna gorde eta zurrumurruek sahiestu!**

